# 1.989


LEITZA 89
Tiburzio Donearen festak

# 1.989 PESTETAKO EGITARAUA

## UDALAREN AGURRA

Herriko festak ailegatu zaizkigu, eta hauekin batera, beraiek ekartzen duten giro alaitsua. Bitarteko lanak, kezkak eta buruhausteak utzirik, egun lasai eta zoriontsu batzu pasatzeko aukera izanen dugu.
Ongi etorri bero bat egun horiek alaitzera etorri diren bisitari guztiei, eta eskerronak festa hauek antolatzen parte hartzen duten gazteei.
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu leitzar eta bisitari guztiei.





Leitzako Udalak Aurrera Kirol Elkartearen laguntzaz 1989ko Abuztuak 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean Tiburtzio Donearen ohoretan ospatutako pesten egitaraua.

Programa de festejos organizados por el Ayuntamiento de Leitza, en colaboración con el C.D. AURRERA, en honor de su patrono San Tiburcio y que tendrán lugar los días 10, 11, 12, 13, 14 y 15 del mes de agosto de 1989.




UZTAILAK
JULIO

IGANDEA
DOMINGO



Pestetako egitarauen banaketa eginen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz (gogan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaiekezuela).
**Arratsaldeko 5-etan:** Herriko koadrilen arteko probak, plazan.
**Arratsaldeko 7-etatik 11-ak arte:** KAXIANO herriko plaza.
**Arratsaldeko 7-etan:** kalejirak ARTADI txarangarekin.
**Gaueko 12-etatik aurrera:** Gaiteroak ibiliko dira herrian barrena.

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música (solamente se debe entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada).
**5 de la tarde:** Diversas pruebas entre las cuadrillas del pueblo en la plaza.
**7-11 de la noche:** KAXIANO en la plaza.
**7 de la tarde:** Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.
**12 de la noche:** Música en el pueblo a cargo de los gaiteros.



# ABUZTUA AGOSTO — IGANDEA DOMINGO

## «UMEEN EGUNA»

**Goizeko 8-etan:** Diana txistulariekin.
**Goizeko 9-etan:** Zaldi txikiak (poniak) plazan.
**Goizeko 10,15-etan:** Aurten eta egun hontan, umeak izango dira Udaletxea ordezkatuko dutenak, dantzari ttikien artean aukeratutako umeak izanen direlarik. Ordu hortan eta karrapean alkatearen «bara»-ren eskeintza ospatuko da, herriaren agintea ume horien eskuetan utziz.
**Goizeko 10,30-etan:** Meza Nagusia. «Korporazio» berria dantzari ttikiekin batera joanen delarik.
**Goizeko 11,30-etan:** Umeentzat jokoak.
**Arratsaldeko 4-etan:** Txirrindulariak herrian.
**Arratsaldeko 5,30-etan:** Dantzari ttikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.
**Arratsaldeko 7-etan:** Herriko trikitilarien saio bikaina plazan.
**Arratsaldeko 8,30-etan:** Kalejira ARTADI txarangarekin.
**Arratsaldeko 8,30-etan:** Dantzaldia Naygi taldearekin.
**Gaueko 12-etan:** Dantzaldia NAYGI taldearekin.

## «DIA DEL NIÑO»

**8 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis.
**9 de la mañana:** Ponneys (caballitos) en la plaza.
**10,15 de la mañana:** Este año serán los mismos niños los que representen a nuestro ayuntamiento, siendo elegidos éstos, entre los dantzaris pequeños. A esta hora y en la plaza se ofrecerá la «bara» del alcalde a estos niños, dejando la representación del pueblo en sus manos.
**10,30 de la mañana:** La nueva «corporación» acompañada del resto de los dantzaris ttikis, acudirá a la Misa Mayor.
**4 de la tarde:** Carrera ciclista.
**5,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris ttikis del Aurrera y a continuación bombas japonesas.
**7 de la tarde:** Exhibición de los trikitilaris del pueblo.
**8,30 de la tarde:** Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.
**8,30 de la tarde:** Bailables a cargo del grupo NAYGI.
**12 de la noche:** Nueva actuación de la orquesta NAYGI.






**ABUZTUA** **OSTEGUNA**
**AGOSTO** **JUEVES**

## «PESTA BEZPERA»

**Arratsaldeko 6-etan:** Ezkila jotzea eta etxafuegoak botatzea pestei hasiera emanez. Ondoren kalejirak txistulari eta ARTADI txarangarekin, eta buru-haundiak.
**Arratsaldeko 8-etan eta gaueko 12-etan:** Dantzaldia JOSELU-ANAIAK taldearekin.





## «VISPERA DE FIESTAS»

**6 de la tarde:** Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación Kalejiras y cabezudos a cargo de la txaranga ARTADI y los txistularis.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables amenizados por el grupo




# ABUZTUA AGOSTO

# OSTIRALA VIERNES

## «TIBURTZIO DONEAREN EGUNA»

**Goizeko 7,30-etan:** Dianak txistulariek eta ARTADI txarangak joak.
**Goizeko 9-etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
**Goizeko 10,30-etan:** Meza Nagusia. Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.
**Eguerdiko 12-etan:** AURRERAko ezpatadantzariak plazan. Ondoren pilota partidua plazan: LUJANBIO-APEZETXEA MARIEZKURRENA-GOIKOETXEA.
**Eguerdian ere:** KOKTEL III. LEHIAKETA.
**Arratsaldeko 5,30-etan:** Zezenak plazan.
**Arratsaldeko 6,30-etan:** Anjel Alduntzin eta Luis Erbitiren omenez Billabonako «ZERO-SETTE» akorkeoi taldearen saioa plazan.
**Arratsaldeko 7,30-etan:** Pilota partidu profesionalak frontoian.
**Arratsaldeko 8-etan:** Dantzaldia ARITZA taldearekin.
**Gaueko 12-etan:** Dantzaldia ARITZA taldearekin.

## «FESTIVIDAD DE SAN TIBURCIO»

**7,30 de la mañana:** Dianas a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.
**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.
**10,30 de la mañana:** La Corporación acompañada por los dantzaris del AURRERA acudirá a la Misa Mayor.
**12 de mediodía:** Actuación de los ezpatadantzaris del AURRERA. A continuación partidos de pelota en la plaza: LUJANBIO-APEZETXEA MARIEZKURRENA-GOIKOETXEA.
**5 de la tarde:** Vaquillas.
**6,30 de la tarde:** Actuación del grupo de acordeones «ZERO-SETTE» de Villabona en homenaje a Angel Alduncin y Luis Erviti.
**7,30 de la tarde:** Partidos de pelota profesionales en el frontón.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables amenizados por el grupo ARITZA.





12

ABUZTUA
AGOSTO

LARUNBATA
SABADO



**Goizeko 7,30-etan:** Dianak txistulari eta ARTADI txarangarekin.
**Goizeko 9,30-etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
**Goizeko 11,30-etan:** Herri Kirolak.
**Arratsaldeko 5,30-etan:** Zezenak plazan.
**Arratsaldeko 6,30-etan:** Aurrerako Dantzarien saioa plazan. Ondoren bonba japoniarrak.
**Arratsaldeko 8-etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.
**Gaueko 12-etan:** GAUBELA taldearekin dantzaldia.

**7,30 de la mañana:** Diana.
**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.
**11,30 de la mañana:** Deporte Rural.
**5,30 de la tarde:** Embolados.
**6,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris del Aurrera y a continuación bombas japonesas.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo GAUBELA.




# ABUZTUA
# AGOSTO

# IGANDEA
# DOMINGO

**Goizeko 7,30-etan:** Dianak txistulari eta txarangarekin.
**Goizeko 9,30-etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
**Goizeko 11-etan:** Artzai zakurren lehiaketa, Estazio ondoan.
**Arratsaldeko 5,30-etan:** Zezenak plazan.
**Arratsaldeko 6,30-etan:** Leitzako Ingurutxoa. Ondoren bonba japoniarrak.
**Arratsaldeko 8-etan:** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.
**Gaueko 12-etan:** GAUBELA taldearekin dantzaldia.

**7,30 de la mañana:** Diana.
**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.
**11 de la mañana:** Campeonato Comarcal de perros de pastor, al lado de la Estación.
**5,30 de la tarde:** Embolados.
**6,30 de la tarde:** Ingurutxo de Leiza y a continuación bombas japonesas.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Actuación del grupo GAUBELA.





14

# ABUZTUA
# AGOSTO

# ASTELEHENA
# LUNES

**Goizeko 7,30-etan:** Dianak txistulari eta txarangarekin.
**Goizeko 9,30-etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
**Goizeko 11-etan:** Bertsolariak zinean: A. EGAÑA, PEÑAGARIKANO, X. ZEBERIO ETA MAÑUKORTA.
**Eguerdiko 12,30-etan:** Sagardo Degustazioa plazan.
**Arratsaldeko 5-etan:** Zezenak plazan.
**Arratsaldeko 6-etan:** Herri Kirolak.
**Arratsaldeko 8-etan eta gaueko 12-etan:** Dantzaldia IZAN taldearekin.



**7,30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis y la txaranga.
**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.
**11 de la mañana:** Bertsolaris en el zine: A. EGAÑA, PEÑAGARIKANO, X. ZEBERIO Y MAÑUKORTA.
**12,30 del mediodía:** Degustación de sidra en la plaza.
**5 de la tarde:** Embolados.
**6 de la tarde:** Deporte Rural.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo IZAN.




## ABUZTUA
## AGOSTO

## ASTEARTEA
## MARTES



**Goizeko 7,30-etan:** Dianak txistulariekin eta ARTADI txarangarekin.
**Goizeko 9,30-etan:** Entzierroa eta zezenak.
**Goizeko 11-etan:** Ezkonduen arteko kirolak plazan.
**Goizeko 11,30-etan:** Larbando Futbol zelaian 3. mailako futbol partidua TOLOSA C.F.-C.D. EGUES. Sarrera dohain.
**Eguerdiko 2,30-etan:** Aurrerako bazkideen bazkaria.
**Arratsaldeko 6-etan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.
**Arratsaldeko 7-etan:** Ezkonduen ingurutxoa.
**Arratsaldeko 8-etan eta gaueko 12-etan:** Dantzaldia UDABERRI taldearekin.

## «DIA DE LOS CASADOS»

**7,30 de la mañana:** Diana.
**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.
**11 de la mañana:** Deporte en la plaza.
**11,30 de la mañana:** Partido de Fútbol de 3.ª división en Larbando: TOLOSA C.F.-C.D. EGÜES.
**2,30 del mediodía:** Comida de los socios del Aurrera.
**6 de la tarde:** Encierro de los casados y embolados.
**7 de la tarde:** Ingurutxo de los casados.
**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo de la orquesta UDABERRI.

# OHARRAK

# AVISOS



1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten PELOTA BERRIK antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu,

1. La charanga INCANSABLES animará el pueblo todos los días de fiestas mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad, en el ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por PELOTA BERRI, mediante los

# PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA 12 ZENBAKIA





«Gure Plazaolaren aurtengo senidea».

# PLAZAOLA

75 urte halajaiñena! eta oraindik bizi omen da! bai, bai, gure «tren ttiki» maitea Ponferradan bizirik dirau.

Ezagutu ez dugunok ere ikasi dugu hura maitatzen, eta nola maitatu gainera!! hainbeste historio entzun dugu! hainbeste kontakizun...! inork ez ote du gure trena bertaraxeago ekartzeko ahalmenik! Iruiñea edo Donostiraino benik...!, bihotz asko alaitu eta sentimendu aunitz azalduko lirateke.

1.914. urteko hilbeltzean jarri zen martxan, elurra ari zuen. Gure plazaola «mutur beltza» mendi txurien artetik abiatu zen, bidean aurkitzen zituen oztopoak gaindituz. Soinu berezia, kea iluna, itsura dotorea... errege beltza bailitzan. 1.953. urte arte, han hemenka. Donostiatik Iruiñera, tunelez tunel, mendiz mendi. Elurrakin hasi eta euriarekin bukatu, uholde bat izan zen erruduna, halabeharra...! tartean hainbat eta hainbat gora-behera, ondoren... oroitzapena, berriz noiz etorriko... itxaropena!

Baina aurtengo Ihauteriak iritsi eta oharkabean non agertzen zaigun gure trenaren «senidea», gure poza! hura gozamena! Larriei, kontu eta historio zaharrak gogoerazi zizkien, gu berriz, ahozabalik egitazkoa noiz ikusiko ote dugunaren zai, irrifarrez, atseginez... eskerrik asko PLAZAOLA eta... laster arte.



LUISENBORDA

# ESKOLABENEA

San Pedro egunean beroa galantarekin yoaten ginen Larbadi gora Kaxetara, aizkora apustue eta hango pesta ikustera. Eta, Yoanenea eta Luisenbordaren tartean, kamio bazterrean, pareta zaharrak. Jitoak erre zuten ESKOLABENEko pareta zaharrak ziren. Hamaika histori kontatzen ziguten etxe horri buruz eta beldurrez iragotzen ginen handik.

Eskolabenea erre zuten 1944-ko martxoaren 9an. Garai hartan Eskolabeneko familia osatzen zutenak ziren: Miel Joakin eta Prexkantoni (Franziska Antonia) Astibia Labayen, anai-arrebak, eta morroia, Oxakin «Lanpuxkarrena» (Oxakin Miltxona ere deitzen omen zioten. Hau zen Jose Joakin Lasarte Arribillaga). Beste bi ahizpa ere baziren, Margarita eta Mikela. Baina hok ez ziren etxean eta ez zituzten hil. Mikela ezagutu nuen nik, Leitzeko mojekin bizitzen zen.

Miel Joakin bizkorra eta oso biuñe omen zen. Gau batean Kaxetan apustu egin omen zuen baietz etxera yoan arbolez-arbol lurrera yetsi gabe. Eta baita yoan ere. Garai hartan lizar asko omen zen kamio bazterrean.

Gorriztarango neska bat omen zuen andregaia eta laister ezkontzekoa omen zen.

Hiru jito Hernanikoak ibiltzen omen ziren garai haietan hemen eta Eskolabenekoei abere bat saldu beste bat erosi eta hola ibiltzen omen ziren. Garai hartan abereak diru asko egiten zuen eta Eskolabenekoak diru piskaren bat bai omen zuten abereak salduta hartua.

Elurra omen zegoen eta jitoak Eskolabenera yoan. Ez dakigu ostatua eskatuta edo nola baño nolabait sartu ziren etxean. Aurrena Miel Joakin, etxeko semea, eta morroia lotu zituzten eta gero Prexkantoni burni batekin yoka erabili zuten diruak non zituzten erakuts arazten. Prexkantoni ere lotu, etxeari su eman eta alde egin zuten. Hantxe erre ziren anai-arrebak, morroia eta etxean zituzten azinda guziak.

Gero Aranorako bidea hartu zuten. Etxetik gora hantxe omen zeuden elurrean hanka arrastoak. Aranon mille peztakoa kanbiatu eta Frantzira. Frantzian bat harrapatu eta ekarri zuten Iruñeko kartzelara eta honek aitortu zituen egin zituzten azio txar guziak.

ASTAITZ

JUANENEA





Fermiñek: *Urrengo urten omenajea in bear tzeiu Joxepari. Aoxe bakarra dok lengo ottera zarrari eusteiona!*
Kazok: *Bai, Leitze beti izan dok oso erri tradizionaliste, beño, emene ottera onak galdu ittettok zea... Txarrak seitzeikea, beño onak?... Joxepa besteik etzeok ottera onak seitzeittona.*
Pilartxok: *Zuk segi ortan Joxepa! Zu bezelakoik eztaota! Zuk uzten badozo akao!! Akao gure gaopasak!!*

Joxepak: *Ok ok!... Tori Fermiñ artzazo kafe pixkoat.*
Pilartxok bizkarretik artute: *Eon eon Joxepa, oaiñ fotografie atea beauta!* Ok yoan den urteko kontuk die. Aurtengoak ekusi in bear!
E, Joxepa? Bai oixe!! Bejondeizula Joxepa, ta pestak ongi-ongi pasa.

# LAGUNTZA!!




Laguntza bai! hau da nere oihua, entzun nahi duenarentzat. Zer ari ote naiz!
Nora noa!
Zer egin dizuet horrela tratatzeko!
Hau bizi nahia eta ezina!
Hau inpotentzia nerea!
Kejak besterik ez dituen hau, nor ote den galdetuko duzue..., bai kejak! eta horrela jarraituko dut.
BIZI NAHI DUT!!!
Nere soinuak gero eta gutxiago entzuten dira Euskal-Herriko kale, etxe, tabernetan...
Eta zu LEITZA, orain arte altxorra bezala gorde nauzuna, nere ahots eta laguntzarekin gizon haundiak eman dituzuna..., nere etsaiaren menpean utzi nauzu! baztertu egin nauzu! Zuk eta zure jendeak nahiago duzue erderaz mintzatu, ni bakardadean utzi, hil zorian..., arrotz senti arazten nauzue zuen artean, ZERGATIK!... ZER EGIN DIZUET!... ZER DU ERDERAK NIK EZ DUDANIK!...
Oraindik, haurtxoek maite naute, baina gero...! bota eta baztertu egiten naute! EZ DUT ULERTZEN...
Nik ere balio dut ligatzeko, poteoan ibiltzeko, bileretako, kirola egiteko, jolasteko...
Gehienak nere alde zaudete!! Abertzaleak zarete!! baina erderaz mintzatzen zarete, seme-alabei txikiak direnean euskeraz egin eta gero ez duzue nere beharrik... ez! EZ DUT HIL NAHI!
Beldurrez nago nere etxean, etsaiak hondatu egin nau, zuen laguntzarekin hondatu nau, lotsatuarazi nau.
Hara hemen nere azken karraxia... LAGUNTZA!!!... lagun iezadazue galdutako txoko bero eta goxo hori aurkitzen, etxean, sukaldean, dendan elkartean, kanpoan... bihotzean.




# ATERALDIAK

*NAHI HUKE BAÑO...*

Muño bazin anoa bizkarrean hartuta aste guzirako Baztarla barrena Leitzelarrera. Maiatzaren 25a zen, Santurban eguna. Eta bat-batean tximistak eta tormobeak eta kriston kazkarabar yasa. Muñok pabopetik:

–Nahi huke baño beandu habil!

*PEUSTENEKO «KONGRESOA»*

Egunero lagun mordoska biltzen zen Peustenko mahaiaren inguruan. Billera horri «kongresoa» deitzen zioten. Mahai horrek hitz egiten baleki hango xelebrekeriekin liburu bat egin liteke. Behin «kongresoak» erabaki zuen denak bertso bana bota behar zutela. Hasi ziren eta batek hala holako bertsoa bota zuen, ez buru eta ez buztan. Eta Anjel Alduntzinek:

–Hori huen adin gabea eta gainea gaitsetsa!

*UZTALA KARGUE*

Lainopean egun batzuk eginda eguraldia argitu zuen. Mielek metak urratuta belarra zabaldu zuen, atsaldean etxeratzeko asmotan. Bazkaltzera datorrela euria soñukin.

–Hara, gauz onik in behar ezpado uztala kargue!

*DESAPIO LATZA*

Joxek bazeramakin mundi munduko bete belarra malda gora eta ia etxera ailegatu zenean haize boladak betea kendu eta dinbuluke berriz atzea lehengo lekura. Joxek bi ukabilak itxita gora begira:

–Potroik badok etorri hai!

*NEK USTE NIEN...*

Lehenago etxero egiten zen artoa eta garia urte guzirako. Leitzen hiru errota ziren: Goikoerrota, Erdikoerrota (Olaberrie) eta Azpikoerrota. Etxerik gehienetan bazuten ogia egiteko labea. Gariaren iriñarekin egiten ziren ogia, opea eta sutopilla. Jarri zuten razionamentua eta errotak itxi. Hure komedie! Ahal zuenak ahal zuen tokira artoa edo garia ihotzera. Salditsera edo Goizuetara edo... errekazuloren batean kontrabandoz ihotzen zuten lekura.

Igandea zen eta Joan Pastaingoa meza entzunda yoan zen zuzenean arditara eta orduko Oxemartin Astaitzagakoa ehizean zebilen. Joanek harrituta esan zion:

–Ni azkar etorri nak baño hi leheno etorri haiz. Hik bate ez dok entzun izan mezik...

–Motell, nek uste nien errotakin baten elizek'e itxi zittuela eta horrengatik ez nak yoan!

*ONTO HAUNDIE*

Miel yoan zen eguna argitzerako ixtor lekura eta ixtordian halako buelto beltz bat ikusi zuen.

–Hor behorren bat izanen diit etzanda eta sega tripetik sartu baño lehen bialdu behar diit. Arbaztarekin yo zarta! eta muittu ere ez. Zer izanen eta ontoa! Bi eskukin bulkatu neyoan eta raaaa hautsi huen. Zapelaz atzea bizkarren hartu eta ekarri nien etxera. Garai hartan hamabi laguneko famillie giñozen eta aste guzin aritu giñozen yaten eta hala ere kirtena osorik gelditu huen.

*OSTRILLIKA ARRAIKETARIE*

Miel eta bere lagunek Arakindegian musean ari ziren eta atarian «plastaaaa» soñu ikaragarria entzun zuten.

–Ateratzen nak eta atal aurren hantxe zeoan zerri bargoxta haiñeko bixigue. Ostrillika eukio Donostitik Arakindegiko atarira eta hark ekarri zien. Arakindegin ederki prestatu eta lauek apari bikañe iñ giñien.

*ARRANTZALE ONAK*

Plazaolako trenbidea egiten ari zirela Potxolo eta enkargatue yoan ziren Zimeletako errekara arrantzara.

–Putzu bat haundie bazeoan eta han botillen dinamita sartuta patu giñien. Metxari su eman eta pabo baten atzekaldean gorde giñozen eta geroxeo «booommmm». Yoaten gattok eta zera... putzue dena lehortue eta amorraiek hosto muturretatik zintzilik. Bordako txabolan prestatu eta leher yan giñien eta gaiñea kartolak bete eta asto gaxoak nahiko lanak bazetien zama hure etxera ekartzen.

ASTAITZ



«Erdikoa da Joxe almientea».

# JOXE ARRIBILLAGA AZPIROZ, LEITZAKO ZIZTULARI ETA ALMIENTE IZANA

Leitzan, nor ez akordatu Joxe almientez? Gizaki luxe, mehe eta izakera xorrotxeko hartaz. Hogeitamar urte ingurutik gorakoak, seguru denek badutela harekin pasatako ixtorioren bat. Zenbat gazte dira, esate bateko, igandetan meza nagusiko garaian plazan pilotan harrapatu zituelako multa sartuko zeioala esandakoak; eta esandakoak bakarrik ez, baita multa yarritakoak ere franko. Zenbat gazte dira, Gazpillozulon lenbiziko zigarrok erretzen Joxek harrapatutakoak? Harrapatutakoak igoal ez hainbeste, baina, ihes egindakoak asko. Zenbat neskagazte dira, Joxe dela medio, igande ilunabarretan laguntzeko mutilik gabe beren baserritara joanak? Eta zenbat mutil gazte, bezperatako orduan plazan pilotan gustora ariko bai, baina, almiente txar hure han zegoalako aritu gabe geldituak? Auskalo horrelako zenbat gorabehera almiente «xipotx» hari esker. *«Bai, zipotza, zorrotza ta nai doken guzie izane uen, beño, oaiñ pentsatzen yarrite, bizitasune ematten zeioan ark erriri».*

## JOAKINA PURIKANAK KONTATUTEKOAK

*«Atte zurgiñe zuen oik. Berganen izate zun zurginteie. Ama, Kordaungo alaba. Laroitamasei urtekin il zetzioan atte. Andik zazpi eunera berriz, alaba, Joxen arreba Joakine il zen; ta ogeitabost urten burure il tzen Joxe zena. Anai-arrebak beste senideik etzuen. Bik soltero. Etzien ezkondu. Atte ta arreba il zetzizkionen, bakarrik geldittu zen. Etzen atea Berganetik, beño, Aizpea, eliz ondoko etxe ortan yarri zen. Or ittezun yanda, zea guzie. Sue ta pizten zun Berganen; etxea konpleto eukitzen zun, beño, yatea ta lo ittea ta, Aizpea etortzen zen. Bergane oi, Maxurreneko nausina zen, Vicente Saralegi zen nausie. Urere il tzen, ta erederoik etzun, ta Jose Korreona utzi zun aministradore. Joxe Korreonak intzun etxe oi saldu, beño, Joxe almientea ilda gero, esantzion bizi zen arte ibiltzeko. Seietan eun pezta paatzen tzun errenta».*

Jose hil zenean, ondasun eta gauza guziak bere iloba ordeko Joakina Azpirozen familikoek jaso zituzten. Baina, partizioak hara nola egin zituzten: *«Gauze asko subastan atea giñun. Arropare asko zuen, ta ure in giñun, mixerikordie eaman. Arropa zurie dena mixerikordieko utzi giñun. Ta beste trastek eta guk yaso giñuzen. Gero, diruere asko zun. Salamancako praille batzukin bazun zerbatte, suskribittue edo..., ta aari utzi zezkioan amabi mille duro. Guri berriz, lengusu guziri zortziñe mille pezta utzi zezkiun. Ta, gero gañeakoa: Aizpekori ogeitabosna mille pezta ta koarto bate utzi zezkioan».* Aizpeko bi ahizpeok Florencia eta Engracia Burlada dira. Bat hila da, Florencia zena, oraintsu dela zazpi bat urte; eta bestea, Engracia, oraindik bizi da. Hauek zainduko zuten Joxe almientea, aita eta zuen arreba bakarra hil zitzaizkionean: *«Ya, ordueko iruroeitabost urte kunplitzea zin de, jubilazioare laxter eldu zetzion. Eun baten plazan zegoala esan tzien olaxe:* Zu Joakina, ba al dakizu gaizki nagoala. Bai zea gaizki! Zer dozo ba? *esanion olaxe nik.* Ze pasatzen zatzo ba? Burue naasi ittentzat, ta eztakit eztakit... Ui! ba, yoanen ga medikute. Bai, launduko al diezu? Ta, bai bai, zeatik ez dizot laundu bear ba! *esanion olaxe. Ta, tasise beak paatute yoan giñen olaxe bik Iruñea. Ta, an esan tziguen andik eztakit zenbat eunea manikomiora yoateko, an bazela mediku bet, Lizarraga edo zerbatte ola zen, oso ona, ta ark ikusiko zula. An bazela aparatoat ta artan ikusiko zuela. Ikusi zuen, da, esan tzeidean* «que tenía un tumor en la cabeza».

Buru oso argiko gizona omen zen. Gauzak memoriz aise eramaten zituena. Eskola haundia zuena. Leitu eta eskribitu erraztasun haundiz egiten zituena. Zurgintzako liburu bat ere bazuen, garai hartan izango zen onenetakoa, arkitektoek eta eskultoreek eta... erabiltzen zutena; aita zurgina zuenez, hari erosia omen zuen erregalo modura. Herriko landare klase desberdinen fitxategi moduko bat ere egiten hasia zen, bere muestrario, izen zientifiko eta guzi, hatzu...

*«Gero, gaizki zegoala ikusi zuenen, esan tziguen, in bear zela ingresatu, hospitalen ingresatu bear zela. Ala ingresatu giñun, ta enfermerai esan nioan nik, kauso itteko nik ezin nula ta; zapi mile pezta utzi nizkioan kauso itteko. Nik ordun umeke, gaztena biñipin, oañike ttikie bainun, ta onea etorri bear izakio; beño, an Iruñen pariente batzuk banittun de, arire esan nioan, Joxe nola zegoan hospitalen da, kauso pixkoat itteko. Ala biñipin, urrengo eunen bazkalondoan enfermerak eta beren rebisioa in duenean, ze in do Joxe onek?, inor ez dela ikusi dunen ospa aldein bere arropak yantzitte! Yoaten omen die gue pariente oik atsaldeko bostak aldea edo bixitatzea, ta oben iñor ez! hospitala dena jiratu omen due, ta iñon ez duela billatzen!! Yakiñe, medikue ta denak apuretuk, doktor Aguilera zun medikue, ta ez azaltzen gizonik!! Nei deittu zeiden: Joxe faltatu zela! Ta, ni arrittute! Yoan nitzen settun, ta ordueko arrapatue zuen. Hospitaletik kanpoa atera, ta, nonbatte altxatu ezin tzun lekun beten arrapatu men tzuen dena oztue ta eziñen zebillela besok eta dena larrutue!*

*Yoan nintzeneako, eskuk oberi lotuta zegoan gizajoa. Ze paastu zatzo Joxe? esan nion olaxe. Antxe mantari ozkaka... ezintzen egon gizajoa.* Eaman bear nazo lenbelen emendik! Lenbelen eaman bear nazo emendik! *esan tzien olaxe. Iñondik albaitten onea etorri nai zun, beño, ezin ekarri guke ala zegoala. Ordun itzeiñ giñun medikukin ia operatu al tzitteken, eta ezetz, etzittekela operatu. Gero, andik eun batzutara bastante gaizki yarri zen berrize. Ta, bixitatzera yoan giñen, Don Desiderio, Aizpeko oik eta ni. Ta, berrize settun asi zen:* Eaman bear nazue ni emendik! Eaman bear nazue gero! Zergatik eamatten ezpanazue ni ementxe illen naiz! *esate zun.* Bai gizona bai, eamanen tzattu *–esaten genioan guk– gizajoari zenbatte esan bear ta! Gero, suerokin de asi zien, beño, andik belaxe abixoa ekarri zuen, il zela.*

## *PONTXITOK ESANDAKOAK*

*«Mezondoren bandok beak yotzen zetien. Atabala yo tarrrrran... ta lenbizina leitzen tzien zegoen bezela erdeaz, ta yakiñe, baserritar guzik eta ortxe eotte ittuen, ta, seittun euskeaz itten zien zuzenen bereala. Noizen beinka... ze esanen nikek ba, ola malizi pixkoetekine bai, tzikiatzaillea etorri bear tzula ta, olakoak sartuz. Ta denak parrez uzten zetien azkeneako. (Ottera oi bazien Goizutako Pio zenake. Meza nausi ondoren botatzen tzien bandoa. Han badok ba, argain bat, Urrutineko artatik plazaldera, ba andik botatzen tzien. Ta, arke botatzen zetien azkeneako* «Urrutinen badela salda erra artu nai dunantzako» *ta olakoak). Ba, lenbiziko itzulpenak Joxek itten zetien euskeaz. Uen... oso deretxa uen, oso eskuiñe uen, beño, beti beti beti dando guzik erdeaz ta euskeaz itten zetien, oso ongi itten zetien gañea, bitan.*

*Oaiñ pesta bezpera atsaldeko seitan asten dok, beño, ordun iru terditan aste uen. Iñor ez uen izaten kasik, eta gu, estudiante batzuk eta... antxe eotten giñuzen plazako koskan yarrite. Joxemiel sakristabea asten uen lenbizi ezkillek yotzen, oso ongi yotzen zetien gañea; ta geo Joxe almiente onek botatzen zetien etxafuegok. Onena sekulako numeroa izate uen: yartzen zetien balkoben, ta urrutitik eskue luzatuz metxari su emetten tzeioan, ta fissst asten zenen, antxe gordetzen uen tximista bezela barrena! Guetzako ue espektakulo bat izate uen! Kriston billurre zeioan etxafuegoei, beño, kristona e! Geo gañea, pestak alleatu orduko nerbioso yartze uen. Nik etzekit zeatik, beño, galduta ibiltze uen gizajoa. Zerbattetako beartzen baitzen, ez uen arrapatuko ue! ezta erri guzie pasatare! Nik etzekit non sartzen zen, beño, gorde itten uen nonbatte.*

*Gero, etxeko lanake beak itten zetien. Bei bat eukitzen zien Berganen, ta arentzako belarra ebaki ta, astoakin ekarri ta, olako lanak. Belatsoroa Oialdeko ortan izaten zien. Artakore oso txukune uen. Gauza guzitako uen oso txukune. Perfezioniste utsa uen!*

*Boza mei meia zien, ematten zien mutiko baten boza zula; tiploi baten boza zien bai. Ta, kantatzeko, ba, orreatik etzeioan deitzen Don Jaimek; ez baitzun ba, egokie boza. Musike bazien, beño, bestela bozaldetik eta ola ez; auspoike ez baitzun izaten bate. Txistuere oso garbi yotzen tzien, beño, nota juxtu juxtukin, pikatu pikatue. Angel falta zenen, gutxitan faltatzen uen e!, beño, iñozka bai, ta ordun beak bakarrik yotzen zien. Irulau pieza bakarrik yotzen zetien, beño, aik oso garbi eta ongi yotzen zetien. Akordatzen nak porrusalda bat nola yotzen zun:* papi papi papi papo, papi papi papi papo... *pikatu pikatue yotzen zien; geiegi pikatzen zien. Orreatik, opera ta olakoak etzetzizkioan bate gustatzen. Notak ainbeste luzatze ori gaizki zegoala esaten tzeidean».*

Musika jo bakarrik ez, egin ere, bazituen txisturako berak egindako piezak. *Otzoal* minue ezagunari laugarren parte bat erantsi zion, oso polita. *Diana y Jota* izenaz ezagutzen denekoa ere berak egina zuen. Baita *Aguazilaren Jota* bezela ezagutzen dena ere. Eta hain ezagunak ez diren fandango eta porrusalda geiago ere badira berak eginak. Beraz musikagile ere bazen gure Joxe zena. Transportek egiten, txisturako doinuan jartzen, eta holako lanetan Pontxito maisuak berak lagundu izandu omen zion behin baino gehiagotan, baina, sormen lana dena berak egiten omen zuen.



«Joxe Arribillaga, atabala yotzen ari dena»

*«Baakik, gu ordun ayuntamentu bizitzen giñuzen, ta askotan eotten giñuzen elkarrekin. Koarto bat izaten zien beetzako, ta an aitzen uen gauetan. Argie pixtue zegoala ikusten nunen askotan yoaten niñuen beangana. Baakik, oso berexie uen, ta batzutan purrustin artzen nengoan, beño, beste batzutan ongi, pozik artzen nengoan; izaneze, etzien iñor izaten da, ola, pixkoat bere gauzetaz itzeitten sottekota. Antxe asten tzeidean partitura atsata, zer iduitzen zatzo? galdezka, bere ilusio guzikin.* Ongi ongi, oso ongi dao! *esaten neioan nik. Ta geo, transportek itten da, txistun doiñun yartzen da, olako gauzetan launtzen neioan.*

*Antxe eukitzen zetien atabala, txistue, ta baita, flauta trabesera ere. Flauta trabesera ere yotzen zien bai. Oañik gogoan zeuket Sanjurjo akordeonistekin yotzen zun pieza bat. Geo, Angelekin da, entsaio bat eo beste itten zikean noiz beinka. Ta, entsaiatzen ari ziela norbatte sartu ezkeo, tapa, txistue besapera eamatten zien bereala, ta izketan asten uen. Alako baten, Angel aspertze uen, ta esaten tzeioan:* Beno Joxe, entsaiatu beau edo?... *Nik etzekit seguru musike yotzen non ikasi zun. Beño, beiñ usteit esan tziela, soldauska intzula Madriden, ta an ikasi zula.*

*Ordun elizan, Praxkuk, Bernaben attek, eamatten zien batuta, beak zuzentzen zien kanta asunto guzie. Ta, Praxku falta zenen Astarlak, Joxemari Sagastibeltza alkate izantakoak. Ta, oi falta zenen berriz, Joxe onek beak ematten zien. Beño, etzien bate pazintik. Ordu asko kantatzen baitzen ba elizen! Tiplek eta... Asi, patxadan asten uen, beño, bestek baakik, gerota abudogo kantatzen, ta onek erki seitzen! Bestek zenbat eta abudogo kantatu, onek ordun ta abudogo dirijittu! Don Jaime berriz, organoan yartze uen, beño! sutan e!*

*Beste aldi bat izandu zien,* segunda juventud *eo esaten tzaioan. Ortxe berroitamar bat urte zittula edo, bizikletan ikasten asi uen, ta ikasire in tzien. Mutikoxkorrak beño ilusio aundiokin ibiltzen uen. Bein ordea, bizikletan zebillela plazako frontise yota besoa autsi zien. Sekulako disgustoa izandu zien artatik. Geoztik eztien bizikletik ikusire in nai izaten! Garai artan, esaten nien bezela,* segunda juventud *edo delako etapa ori bizi zula usteit. Au etzakela yarri beño, neska baterire estualdin bat ordun eman izan bear tzeioan ayuntamentuko eskalletan arrapatuta. Geo, artzen tzeioan adarra, korreoa eamatten zun neskazar arekin, Pilar Garrokin; ue zula andregaie ta, olakoak esanez, noiz ezkondu bear tzuen da...».*

## *FERMIN TA KANDIDO TOLATXENEKOAK ESANAK*

*«Gu, oaiñ bezela, karrapen aitzen giñuzen iandetan txistu yotzen; euldi ona bazen kanpoan plazan, ta txarra bazen karrapen; oaiñ nola da taberna? ba, ataurre ortantxe; ori leno kartzela uen. Ba, ortxe yotzen giñien txistue; ta, amezkillek eo illun ezkillek yotzen zittun beziñ pronto, moztuezi itten tzeiun pieza, igoal tzien piezerdin ai bagiñene! etorrite moztuezi itten tzeiun. Olakotan xuxena ta txorrotxa uen oso. Ta, karrapen zegoan yende guzie etxera bialtzen zien aurren artute. Neskatx asko, baserrita yoan bear izaten zuenak eta, antxe yoate ittuen lasterka; biden launtzeko mutillik izaten bazuen ongi, bestela bakarrik.*

*Beste bein Exkubire etxera biali izandu zien. Exkubi ordueko guekin aitzen uen txistu yotzen, beño, gauze ofizialetan da ez uen sartzen; gañea, olako gauzetan zorrotz amorratue baitzen almientea. Bein, Korpus eune uen, ta, ordun, Korpus eunen aldarea yartze uen plazan, ta kalez kale prozesioa iñ ondoren ara biltzen giñuzen denak, ta, oaiñ* Agur Jaunak *yotzen den bezela, ba, ordun* himno nazionala *yo bear izaten giñien. Ala biñipin, allatu dok* himno *ori yotzeko ordue, ta Angelek eta almientek yo zikean, beño, Exkubi ixillik gelditu yo gabe! Andik urte betera, allatu dok berrize Korpus eun ori, beti bezela etorri dok Exkubi txistue artute, beño, almientek gogoan eukikio aurreko urtekoa, ta etxera ez dik ba biali! etzekit ze esan izanen tzeioan, beño, etxera biali zien ez yotzeko esanez. Gañea* derecha *amorratu oitakoa baitzen, ta exkubitarrak baakik...*

Bein baten, ospitalea eaman beño leno, bik yoan giñuzen meza nausire. Ta, beruntzen mezatik eldu giñela, Burladan etxe atariko ortan, beiratu zien atzera, ta «ume makartzu orik ze ai die or» *esan tzien olaxe. Beiratu nien atzea, ta iñor ez! Pentsatu nien nere arten* «gizon au etzeok burutik ongi». *Aixe etzegoan ongi! Andik belaxe eaman tzikean Iruñea, ta sekulako tumorra etzaioa ba arrapatu burun! Aixe zegoan gaizki!*

*Ijitok eta olako yendek billur ikararrie zeioan. Ez ittuen azaltzen emen!... Ta azaltzen bazien, settun an izate uen gañea, settun bialtzen zetien makillekin aurren artute. Denak ikatuk eukitzen zetien. Beste goardazibil bet izaten zien laguntako, uere gorra uen, Fernadiko Lanao,* Turuta *esaten tzioana, ttiki ttiki txar bat uen, beño, ukabilkazoka ta pollitte yartze uen ba! Onea kornetero gisan etorrite bertan jubilatue izaten uen. Beti Joxe almientea ta bik izate ittuen eskazalek eta, pobrek eta, olako yendea uxaazten. Iñon sumatu ordueko bialtzen zetien; bai abudo bialire! Bein, moxkor bat kartzelea sartzen launtzekore esan izandu zeien Joxe onek. Etzan itten zetzioan, ta ezin arrastatu, ta nei esan tzaien laguntzeko; nik ezetz, beak sartzeko nai bazun, nik ez nula iñor kartzelea sartzen ai bearrik!*

*Garai artan gabeko amabitako itxi bear izaten zikean taberna guzik. Joxe onek eta Lontxo goardak pasatzen zikean erronda, tabernaz taberna abixo emanez. Lenbiziko erronda amabitan itten zikean, eta biarrena amabiterdik alde ortan, ta ordueko ez bazuen itxie multe yartzen tzeioan taberneroei. Ontan Lontxo goarda ta bik ibiltze ittuen bai. Lontxo goarda au ba al dakik zeintzen? Zea uen, nola pestetan zezenak ekartzen dittona? Ba, orren atte uen Lontxo. Zabalunekoak ittuen oik.*

*Ba al dakik nola deitzen tzeioan Joxeri,* «sin culo» *deitzen tzeioan. Luxea ta meia baitzen oso. Arreba berriz sekulako puske zien, aundi ikararrie. Bein, aguazillen traje berrie in tzeioanen, bere etiketa ta guzi, lasa lasa gelditzen tzeioan. Ta, Joxemari Zinkok, Ontsalunekoak, erdi bertsolari oitakoa uen ba, ta ala esaten zien; arrebari neurrik artute in tzeioala trajea.*

*Denuntzik ere bazetien zelebrek. Bauen bat* Aloleo *esaten tzeioana, Jexux akordeonista onen osaba uen. Ta, bein, ze in do* Aloleo *onek, karrapeko baxter ortan pixe! Ta, Joxek denuntzie sartu! Amar duro multe! Ta, Aloleok diruik ez multe paatzeko! Azerie eukitzen omen zien etxen, azeri emea, ta, azerie saldu bear izandu omen zien multe ori paatzeko. Ala biñipin, yoan omen dok ayuntameture multe ori paatzea bere amar durok eskun dittula, ta* «una zorra paga otra zorra» *esan omen tzeioan olaxe. Ta, denak arrittute,* «ze esan nai ote do onek?». *Ta, galdetu in omen tzeioan,* «Ze esan nai dok orrekin?», *ta, ordun attortu omen tzeioan multa paatzeko azerie nola saldu bear izandu zun.*

*Beste bein karnabaletan, ordun denak elkarrekin ibiltze ittuen ba, igoal eun gazte denak elkarrelin, sosik gabe beño denak elkarrekin, ta atxauratute zebiltzenak ere, amezkillek yotzen zittunetik aurrea etzikean libre izaten karetakin ibiltzea, betiko yantzikin bai, beño, karetakin da ola ez; etxafuegok botatzea ere ez uen libre izaten. Beño, Periko Zaldar ta Luziori –mañotar oitakoa uen Luzio– ze etorriko burureta? etxafuegok botatzea etzaioa ba etorri, gaberdi aldera! Aguazillek eta Lontxok erronda iñ ondoren, yoan dittok bik txenda barrena landara, ta danba danda danba bota zetikea etxafuegok, ta yakiñe, aguazille ta Lontxo berriz ere, Arakindei aldera, ta bestek txenda barrena gora. Aguazillek eta ikusi zetikea bazter guzik, eta arrastoik ez! Ala, etsik artute berrize gora, plazaldera eldu diela,* danba danba danba. *Aguzille ta sutan berrize bera, ta yakiñe, yendea parrez. Azkenen bik alde banatatik yoanda arrapatu omen zetikean, Lontxo goarda batetik eta Joxe aguazille bestetik yoanda, beño, Luziok aldeiñ. Periko Zaldar ordea, zaldarra izakio, ta arrapatu iñ omen zikean. Arrapatute kartzelea sartu gañea Joxe aguazillek. Goizeko iruk aldea edo kartzelea sartu, ta geo goizen atera omen zikean. Ordun, Periko Zaldar orrek esnea ateatzen zien emen, da, ama denei galdezka* «semea non ote zen», *ta, kartzelan zela. Bittarten Periko kartzeletik aterata Peustenea yoana izakio etxea etorri bearren. Ta, Franki an tokatu, Franki bertsolarie, ta Perikok kontatu zeioa ze pasa zetzion, ta Frankik settun bertsoa yarri:*

Amaika eoten den hotela
negarra dariotela. (bis)
Iñoiz edo beiñ yai egunean
arrapatzen du epela.
Ta berak esan digu ala:
kartzelan sartu dutela. (bis)

Zenbat holako gertakari Joxe zela medio herriaren gogoan geldituak! Hemen batzuk jarri ditugunarren, ezin konta ahala noski. Harako Euxebio Mikonekori jarri zion multa hura esate bateko. Maldizioak botatzeagatik multakin etorri zaio Joxe, eta Euxebio orandik maldizio haundiagoak botatzen hasi! Joxe joaten da berriz ayuntamentura, eta dobleko multakin etzaio ba etorri! Hori egin egin behar da gero!

Luis Yaben, orduko apaiza zaharrarekin ere ez omen zen ongi moldatzen Joxe, eta hura sermoian hasten zenean, brebiarioa leitzen hasten omen zen Joxe, haren sermoirik entzun nahi ez zuelako.

Herrira fruteroa edo arraiketaria edo holakoren bat etortzen zenean ere, Joxek jotzen omen zuen bandoa herri guzitik barrena, eta behin arraiketaria etorri zenean, *«hay variedad de pescado y anchoa fresca»* esanez eman omen zion buelta herri guziari.

Bai, holako asko geratu izanen da esan gabe. Baten batek Joxeren historiala hobeki osatuko duelakoan bukatzen dut nik, Joakina Azpirozi, Pontxito Irurtiari eta Iolatxeneko Fermin eta Kandidori eskerrak emanez.

SASIZIZTULARI BATEK





«Joxe aguazilla eta Angel txistu yotzen. Esetz asmatu zein den atabaleroa?».

# HERRIE HON ESKUETAN UTZI GIÑUN



Oain dela bi urte hauteskundek pasatu ondoren Plazaolakoak udaletxen sartzea ziztean talde berrikin hitzeittea ioan zien, ia zien zen beren asmoa eta gogoa herrie aurrera ateratzeko.

Han oso gauze politteк leittu zittezken (aleie orain dela bi urteko Plazaolan); gauze guzik herrin alde ittea, protagonismoak alde batea uztea, udala kampora eta iendea udalara urbiltzea, elkarren arten trabak ez iartzea...

Hok bai diela asmo betegabek zoritxarrekoak batzuntzat eta zorionekoak bestentzat, denak dakigun bezela.

Bi urte pasatxoak badie udaletxen daudela eta hamar urte edo akaso gehio herrie atzea diela iñork erremediorik iarri nahi gabe. Norańo allatuko ote ga? Noiz arte iraunen ote do herrigaxoak zutik? Zertan ai ga herrie halako eskutan uzteko? Gure esku garbitze honek oain arte ze kalte ekarri dittun garbi aski (herrie baino gehixeo, nahiz auzolanen saion bat edo beste iñek gauden) ikusi dezakegu, eta gaurdaño ez dakigu zein izanen dien hemendik aurreakoak (presupuestoak edo...).

Errepaso ttiki bat ittea goaz:

*–Urbanismoa*

Saneamentue itteko proiektoa iñe hemen zegoan. Egitan, non ote dao? Zeñek gorde ote do? Oaindiken iakittekoak gaude, guk biñipin eztu holakoik sumatu. Sufritzen dun «saneamentu» bakarra uda hasi berrin gure etxeta urik ez allatzea da, ez dauku negue allatuik!!! Aillatuko ote zaizkigu urek beren tokita!!

Oain berriz ez emen da tomateik ontzen plastikopen iarri gabe, ohartu ez bazatea landatik bueltat intzazue. Oaintxe sortu zaigu dude latza, gure attun-amonak mondik sortuko ote zittuen plastiko «politt» ok.

Allatu zaigu sume Paxkuali berrik eta aitzurrek eztiela ukullutan sartzen, eta hortako Arkixkilgo alor baztarretan hiru pisuko txabolak in beharrak daudela, eta behin hasi ezkeo tximini eta balkobeik gabe ezin utzi dittezkela.

Holaxe bete azten dittue zorioneko Norma Subsidiazioak, edo akaso estudio serioa ittekoa dao.

*–Kultura*

Ikaragarrizko kezka zeukean kulturakin, zinea zela, gaztetxea zela, kultur etxea zela...

Alde guzita «iniziatibak» ikusten giñuzen, udaletxek hartu eta iorratzeko asmokin; nonbatt beta faltan sapelarrak ian dizkioa.

Ordun zineik etzuten, gaur berriz berea da. Zertako ordea?

Bittarten non iñen dittu ikastaroak, musika lanak, billerak, dantzak, NON?

Gaztetxea-kulturetxea, edo ez ote litzeke hobe gaztetxea eta kultur etxea? Gaztetxe haure, zorionez edo zoritxarrez badao, kultur etxea berriz ikustekoa daukegu.

*–Euskera*

Ze ikusi beharrak ote gaude? Sekretarioa izateko ez emen da euskera iakin beharrik, herrikoa den etxe hortan ez emen due euskaz hitzeitten uzten, eta edozein eskaera itteko erdaz hitzattea behartzen gattue.

Hau da marka! batzarrek e «sesioak» bihurtu dizkigue, eta esan beharra daukeu talde bakoitzek bere hizkuntze berezio dula eta berea besteik eztuela aitzen.

Halako asmo ta lan itteko gogoa ikusi ondoren aise ikusi ditteke zenbat gauze aldatu dien. BATEZ.

Hainbesteko lanan aurren osota ikatute emen daude eta oaindik nondik hasteko erabakitzekoa daukea.

Halare, nahiko denbo badue heldu dien bi urteotan gauzeri buelta ematteko (Nahi ezkeo noski) Lanak berriz e asmo «onari» gallanduko zaizkioa, eta hemendik bi urtea lan guzik ittekoak eonen die. Baño, seguro gaude, berriz hameika langile amorratu horik azaldu ta in beharreko guzie iñen duela. Eskerrak!

Gu berriz ardin modun sobrea eskun hartu eta kutxe dotore honen barrenen utziko du gure Leitzen etorkizune.



# TXIRRITA (1860-1936)



Nork ez du entzun noizbait Txirritaren bertso edo ateralkiren bat? Nor ote zen gizon ospetsu hau? Gure sukaldeetan maiz gozatu ditugu honen doinu eta hitz xarmantak. Hurrengo lerroetan gizon xelebre honen xehetasun batzu eskeini eta oroituarazi nahi dizkizuet.

JOXE MANUEL LUJANBIO RETEGI Hernanin jaio zen, «Latze» izeneko baserrian, 13 urte zituelarik, Errenteriko «Txirrita» zeritzan baserrira joan ziren eta 14 urterekin kantatu zuen lehenbiziko aldiz plazan. Bere etxean «maiorazgo» izan arren, nekazaritza utzi eta argintzan hasi zen, baina ez batean ez bestean zen langile amorratua. Bertsolaritza zen bere lana. Bere garaiko bertsolari guztiekin herriz herri, beti umorea eta irrifarra zabaltzen gogoz saiatu zen. Mutilzaharra, parrandazale, tabernakoi eta aldi berean nortasun izugarrizko bertsolari popularra. 150 kiloko gizona. Goizueta herrira bertsotara joan eta buruko atake batek eman eta hortatik hil zen, bertso lanean oporrik eta atsedenik ezagutu ez zuen bertsolari haundi hau.

*Zenbait ateraldi:*

Donostian Parte Zaharrean dabilela, norbaiti galdetzen dio Txirritak:

–Zer ordu da?

–Hamarrak hamar gutxi.

–Orduan batere ez.

Ehun eta berrogei kilotik gora zen Txirrita. Gerri buelta ikaragarria behar pisu hori hartzeko, oso altua ez zela jakinik. Txixalarritua da egun batez eta han ari da errekatxoa egiten. Mutil koxkor bat begira, arreta biziz...

–Ezer ikusi al duk, mutiko?

–Bai jauna!

–Eman iezaizkiok eskuminak, nik hamar urte honetan ez diat ikusi eta.

Jai batetan Meza Nagusira joan eta bikarioak mutil zaharren kontra egin zuen sermoia, handik atera eta biek elkar topatzea gertatu zen, hamaiketako batetara gonbidatuta. Ikusi eta bertso hau bota zion Txirritak:

«Gure herriko bikario jaunak
pulpitotikan esan du
kontzientziko kargan gaudela
ez giñalako ezkondu;
gazte denboran saiatu nintzan
etzan neretzat izandu...
Gazte polit bat hartuko nuke
zuk billatuko bazendu».

1936. urtean Errenteriko euskalzaleek, Omenaldi bat eratu zioten. Ordurako oso baldartua zegoen. Ibili, nekez eta bi makilaz egiten zuen. Zahartzaroko aje guztiak gainean zituen. Baina hala ere umore ona gainezka. Oroigarritzat makil eder bat eskeini zioten Txirritari. Gero bertso hau kantatu zuen:

«Hirurogei ta hamasei urte
garaia det umiltzeko,
gauza haundiren beharrik ez det
goitik behera amiltzeko
bi bastoi hauek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
hirugarren hau andregaiari
arkakusoak hiltzeko».

(BERTSOTAN liburutik)

# LEITZAKO HERRIARI




Beste urteetako festeetako gainbegirada bat eginaz, 1946. urtera jo beharko dugu, urte hortan antolatu bait zituen lehenengo aldiz festak AURRERA K.E.-k, Udaletxearen laguntzarekin.

Elkarte honek bere historian zehar egoera ezberdinak igaro ditu, batzu besteak baino hobeagoak eta gaur egun eta zorionez, egoera ezin hobean aurkitzen gara, jende ugari elkartu bait da lanerako, herriko gauzak antolatzeko hain zuzen ere (20 lagunek osatzen dute Juna Directiva delakoa). Udaletxearekin elkarlanean, ekintza hotxek antolatzen ditugu urtean zehar: Kabalgata, Ihauteriak, Krosa, Festak, pilota, futbol, saskibaloiko txapelketak eta kultura mailako beste hainbat gauza. Honi gehituko genioke gure futbol taldea, txaranga eta dantza taldea.

Aurrerak gazteen kezkak jaso nahi lituzke eta hortarako aurrerapauso garrantzizko bat eman genuen etxea erosterakoan, beharrezkoa ikusten bait genuen gure helburuak aurrera eramateko, apainketa eta kondizioetan jartzeko aurrekontua 10.000.000 peztatakoa delarik.

Hortarako denen laguntzaren beharrean aurkitzen gara eta badakizue ateak zabalik dituzuela bazkide izan nahi ezkero. Azkenik gure bazkidea izan zen ANDRES IRISARRI-ren hitz batzu gogoratuko ditugu, «CORNADAS-1948»-an idatzitakoa, honekin laburtzen bait da gure izaera eta helburua:

«Nosotros encantados de haber aportado nuestro granito de arena, con ello no hicimos sino cumplir el fin que nos propusimos al constituir la sociedad *Todo por y para Leiza* que Leiza y Aurrera son una misma cosa».

Agur bero bat Leitzako Herriari.

# HIRU GOR ETA MUTUA

Bazen behin artzai behartsu bat. Gorra zen baina ez zen asko kezkatzen horregatik.

Goizean goirz joaten zen mendira; igande batean bere emazteak prestatzen zion hamaiketakoa hartzea ahaztu zitzaion eta semeak ere ez zion eraman.

Mendi kaxkoan zegoela egurra egiten ari zen gizon bat ikusi zuen, hurbildu zitzaion eta esan zion:

–«Aizak, mesedez, zainduko al dizkidak ardiak hamiketakoaren eske joaten naizen bitartean?».

Baina egurra egiten ari zena ere gorra zen eta ez zuen ulertu artzaiak nagi zuena. Erantzun zion:

–«Zergatik eman behar diat egurra? Joan hadi hemendik, hi ere besteak bezalaxekoa haiz, besteei lapurtzen beti».

Artzaiak ez zuen entzun erantzuna eta esan zion:

–«Eskerrikasko lagun, lehenbailehen itzuliko naiz».

Laisterka joan zen bere etxera eta emantea kalenturarekin gaixorik aurkitu; auzoko emakume bat etorri zitzaien laguntzera. Hartu zuen jakia eta arin arin igo zen maldan gora.

Ailegatu zenean banan banan kontatu zituen ardiak eta denak pazkan ikustean egurgilearengana hurbildu zen. Honek lan eta lan segitzen zuen.

Artzaiak pentsatu zuen: «Arraioa, hau duk borondate haundiko pertsona. Ardiak zaindu dizkit eta ez dit deus ere eskatu ordainean. Hala ere axuri hau emanen diot, hanka hautsita dauda eta alde guztietara neronek hil behar nuen...».

Asmo horrekin axuria bizkarrean hartu eta esan zion:

–«Aizak, hemen daukak opari bat egindako mesedearen truke. Hanka hautsita zeukak baina gaurko afarirako ongi etorriko zaik».

Egurgileak ordea ez zion entzun eta oihukatu zion:

–«Artzai mixerablea, etzekiat zer gertatu den hi kanpoan hintzen bitartean baina ni lanean aritu nauk eta ez eskatu orain niri axuri horren kontурik. Alde egizak, bestela berotuko haut».

Artzaia harrituta zegoen egurgilearen haserre aurpegi eta keinuak ikusita baina ez zion entzuten.

Halako batean zaldun bat iritsi zen eta artzaiak erregutu zion:

–«Jauna, lagundu egurgileak esaten duena ulertzen, gorra bait naiz. Ez dakit zergatik ez duen onartzen axuria, oparia da eta».

Egurgilea ere hasi zitzaion zaldunari bere usteak gainetik eta haubildu zitzaien. Zaldi lapurra zen eta gorra baino gorragoa. Mendian galduta zebilen eta galdetu egin nahi zien non zegoen.

Baina haien furia ikustean esan zien:

–«Baina, bai, neuk lapurtu nuen zaldia baina ez nekien zuena zenik, barkaidazue».

«Ez dut deus ikustekorik axuri horrekin» esaten zuen egurgileak.

«Esaiozu ea zergatik ez duen nahi axuria» artzaiak.

«Egitan esaten duzuet nik lapurtu nuela zaldia eta damututa nago, baina gorra naiz eta ezin dut jakin zuen artean nor den zaldiaren jabea».

Une hartantxe Bordako anderea agertu zen, herrira zihoala.

Egurgilea segituan hasi zitzaion kontatzen hiruren artean egin zuten nahasketa.

Baina anderea mutua zen eta ezin zuen deus ere esan, orduan beraiengana joan eta aurpegietara begira jarri zen. Hirurak ixildu ziren, zuzen zuzen begiratzen zien denbora luzez gainera, hain luzea egin zitzaien denbora gaizki sentitzen hasi zirela.

Anderearen begi beltz haiek gizonen begietan murgiltzen ziren egi arrasto baten bila. Besteak berriz beldurrik zeuden beraien borondatea kontrolatuko ote zien edo...

Hala zeudela zalduna igo zen zaldira eta alde egin zuen, artzaiak bildu zituen ardiak eta maldan behera abiatu zen. Azkenik egurgilea ere etxera joan zen zotz mordoa bizkarrean hartuta.

Andereak herrirako bidea jarraitu zuen, pentsatuz batzutan hitzegin ahal izateak ez duela komunikazioa errezteko balio.

## HORTZ KLASEAK

Tolosako Ikastetxe batetako andereño batek esaten zidan joan den astean ez dagoela sinesterik azterketatan zer nolako astakeriak irakur daitezkeen. Adibide bezala honako hau jarri zidan. Natur Zientziatako azterketan galdera hau jarri zien ikasleei:

–«Hortz klaseak».

Eta honako erantzun omen zuen ikasle batek:

–Onak eta postizoak.

## IRRIBARRE XARMANTA

–Ai, Miren, farrez ikusten zaitudanean, nere etxea etor zaitezen esateko gogoa ematen dit.

–Aizu, ausarta zara, ezta?

–Ez, neska! Dentista naiz.





## TXISTE MISTEKA



## ADINAREN AJEAK

Amonak medikuari:

–Ez dakit zer izango den, bainan ezkerreko zangoan izugarrizko mina sentitzen dut.

–Horiek adinaren ajeak dira...

–Ez dut ba uste. Eskubiko zangoak ere adin bera du eta ederki asko dabil.

## ASTOARENA

Duela gutxi, Bergarako ezagun batekin egin nuen topo Donostian:

–Kaixo Kike, zer moduz? ...Ez didak sinistuko bainan beti gogoan zeukeat iaz kontatu hidan astoaren txista.

–Horren barregarria iruditu al zitzaian, bala?

–Pentsa ezak! Asto bat ikusten dudan bakoitzean, hitaz gogoratzen nauk!




## TAXISTA ESKUZABALA

Presaka dabilen itxurak egiten ari den emakume batek taxistari:

–Aizu, zenbat kobratuko didazu tren geltokira eramateagatik?

–Ez dakit ba, 300 bat pezetan aterako zaizu.

–Eta maletengatik, zenbat?

–Maletengatik? Eze ez, andrea!

–Tira, orduan eraman itzazu maletak, ni oinez joango naiz eta.

## GORILA TXIKITEOAN

Bilbo Zaharreko taberna batetara gorila bat sartzen da eta whisky bat eskatzen du. Kamareroa zeharo harrituta gelditzen da baina zerbitzatu egiten du:

–Zenbat da? –galdetzen dio gorilak.

–500 pezeta.

–Gorilak ordaindu eta, alde egitera doanean, kamareroak zera esaten dio:

–Aizu, harrigarria da ba gorila bat whiskyak edaten ikustea taberna honetan!

–Harritu egiten al zara? Prezio horiekin!

## SOLDADUSKARA JOAN NAHI EZ

Soldaduskara joan nahi ez, eta Burgosera joan da zeozer asmatu eta alegatzeko prest:

–Egunon! Zer alegatzen duzu?

–Ba... memoria txarra!

–Nola esan duzu?

–Zer!?

–Nola esan duzun!

–Ez naiz gogoratzen...

(ARGIATIK HARTUAK)



# 140 AIZKOLARI SASOIAN!

Eguna bikainki igaro genuen, lan ugari antolaketan, hala ere eta zorionez denen laguntza izan genuen. Eguraldi hotza zen baina leitzar aizkolari ausartak sasobe ederrean bukatu zuten lana.
Denak helburu batekin elkartu ziren, Aurrera K. E-ari laguntzeko eta bidenabar ikuskizun polit bat burutzeko. Helburua bete zen eta ahaztu gabe MILA ESKER parte hartu zenuten guztiei.

•

Eguna bikainki igaro genuen, lan ugari antolaketan, hala ere eta zorionez denen laguntza izan genuen. Eguraldi hotza zen baina leitzar aizkolari ausartak sasobe ederrean bukatu zuten lana.
Berak helburu batekin elkartu ziren, Aurrera K. E-ari laguntzeko eta bidenabar ikuskizun polit bat burutzeko. Helburua bete zen eta ahaztu gabe MILA ESKER parte hartu zenuten guztiei.



# ANA

* Jeunerri denda
* Festa zoriontsuak opa dizkizue
PATXI ARRAZOLA, 9
Leitza




TALLER DE CANTERIA
TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL
REVESTIMIENTOS DE FACHADAS DE PIEDRA
ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS,
FOGONES "ESTILO VASCO"
CRUCES Y LAPIDAS
CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS
EN PIEDRA

TRANSPORTES

LES DESEA FELICES FIESTAS

Taller 51 04 47



Chimeneas
**GAZTELU**

Sistemas de
**Calefacción**
**AGUA Y AIRE**

**EXPOSICION:**
Elgoien, 32 - LEITZA
(Navarra)

**Pedro Telletxea**
- Construcciones
- Albañilería en general
P. Arrazola, 12, 2.º A - Tel. 510580
Jai zoriontzuak opa dizkizue

**FOTO MUGICA ARGAZKIAK**
GRABACION VIDEO y FOTOS
BODAS
HOMENAJES
FIESTAS
MONTAJES DE IMAGEN Y SONIDO, COPIAS, ETC.
FOTOS CARNET EN EL ACTO
MARCOS
FOTOCOPIAS
GAFAS DE SOL
ESTUDIO EN C/ OBISPO HUARTE
TFNO. 51 04 40
LEIZA

**Martín Lizarraga**
Carnicería y Charcutería
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Telefono 510283

**Gregorio Sagastibelza**
Constructor y Albañilería en general
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 51 00 59 LEIZA

**E R O S L E**
Supermerkatua
Tfno.: 51 00 36

PESCADERIA ANA
PESCADOS FRESCOS Y CONGELADOS DEL CANTABRICO
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 51 01 18

**Zapatería Tirapu**
Calzados finos de Caballero y Señora
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Elbarren 36 Tel 51 00 15

**JANARI DENDA ZABALETA**
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
TEL: 51 04 28 LEITZA

**«GAZTETXO»**
Goxotegi eta jolas lekua
*Pesta zoriontsuak opa dizkizue*

**ARDOTEGIA**
**LENITZ**
ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA
FESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
TEL.: 51 03 33 eta 51 04 86 LEITZA

MANDRILADORA
**LEIZA**
S. Coop. Ltda.
LEIZA
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Fabrika Geltokia A., z/g Tel.: 510. 262 LEITZA

TABERNA, ERRETEGIA
**MENDIZABAL**
Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Elgoien, 22 Tel.: 510.128 LEITZA

SAGASTI
TABERNA, JATETXEA
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Tel.: 510.027

**Ignacio Arrarás**
Bodegón · Vinos, Sidra y licores
Cervezas El León
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 03 53

SUCESIONES DE
**JOSE GOMEZ**

**Vda. de Lázaro Erviti**
SERRERIA MECANICA
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Teléf. 51 00 08 LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIAK
ERAIKINTZAK
Lan orokorrak eta berrikuntzak
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Tel.: 510.374 LEITZA

**GARAGE LEITZA**
AMAZABAL, 29 KALEA
BEREBILL KLASE GUZTIETAKO
KONPONKETAK ETA EROSI SALDUKETAK
PEUGEOT-TALBOT AGENTZIA
TEL: 51 04 66 LEITZA

J. M. HERNANDORENA HUARTE
BARDINDENDA - GARBIGAIDENDA
OPARIGAIAK - GARRAIOA
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Tel.: 510.055

Astiz Zurgindegia, s. l.
Sukaldeko haltzariak eta oparigaiak
Pesta zoriontsuak opa dizkizue
Teléf. 51 02 85 Leitza

**BIKOITZ**
Gozotegia - Taberna
Tarta, pastel eta opiletan espezialitatea
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Elbarren, 16 Tel.: 510.072 LEITZA

**ASTIZ**
LIBURUDENDA eta PAPERDENDA
Eskolarako eta kiroletarako gaiak
JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE
Elbarren, 28 Etxeko tel.: 510.405

**MAPFRE**
MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio
Telefono: 51 04 99
Jai zorionsuak opa dizkizue

**GURATZ-MENDI**
**K. K. J. ELKARTEA**
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Elgoien, 1 LEITZA

**Irurak**
ARRANDEGIA
*Eguneko arrainak mariskoak*
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 510.491
Elbarren K. LEITZA

KORNIETA ELKARTEAK
Jai zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA

**JOSE ETXEBERRIA**
GIZONEZKOENTZAKO ILEAPAINDEGIA
Jai zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA Tel.: 510.282

**PERURENA HARATEGIA**
Hemengo zekorretan espezialitatea Urdaitegia
Tel.: 510.164
Jai zoriontsuak opa dizkizue

**ERBITI AIZKORAK**
Tomas Erbitiren alarguna
Aizkol txapelketetarako aizkora garantizatuen fabrika
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 510.060

AZPIROZ ETXEA
JANTZI DENDA
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 51 02 46 LEITZA

**BASA-KABI HOTELA**
Jatetxea, logelak
SNACK BAR
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA**
RENAULT zerbitzua
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 510.259 Elgoien kalea, 15

**"GARBI"**
Garbigaidenda
Usaidenda eta
Jostailudenda
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel.: 510.173

**PLAZA** Autoeskola
**AIALA** Gestoria
**UNION LEVANTINA** Aseguruak
Ordezkaria: Jose Mari Razkin
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Huarte Gotzaia K., 8 Tel.: 510.338
LEITZA

**KOXME ZABALETA**
Ultramarinos
*Pesta onak opa dizkizuegu*
**LEITZA**

**«ELKAR»**
Ileapaindegiak
*Pesta onak opa dizkizue*
**LEITZA**

**GAZTAÑAGA Taberna**
Jose Antonio Escudero
Ogitartekoak, pintxo beroak, kaxuelak
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

# ETXE – TRESNAK

**ARGI-INDAR INDUSTRIALA**
**HIFI - TELEBISTA - BIDEO**

**RADIO eta TELEBISTEN KONPOKETA**
**TELEBISTARAKO ANTENA JARTZEA**
**ELETRICIDAD INDUSTRIAL**
**T.V. - HIFI - VIDEO**

**REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES**
**INSTALACION DE ANTENAS DE T.V.**

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE

Urrutizkinak: 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA (NAFARROA)



## MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa
Tfnoa: 51 05 61

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA



CHAPA - PINTURA - KARROZERIAK

## GURIA
**(P. KALDERON)**

«REPARACION DE VEHICULOS. PINTADO EN CABINA, SECADO AL HORNO»
PINTURAS NACARADAS - PERLADAS
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

TEL.: 51 02 55

LEITZA



## LANDA *TABERNA*

Giro jatorra musika ederra

Jai zoriontsuak opa dizkizue
LEITZA



CITROËN

## SARALEGI

Jai zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 510490

LEIZA



## JOSE MIGUEL URKIOLA
**ESNEKI AK**

Jai zoriontsuak opa dizue

*LEITZA*



## OIALDE
**TABERNA**

Bazkalaurrekoak
eta ogitartekoak
Kafeak, ardoak
eta likoreak

jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel: 510.077

LEITZA

JOSE IGNACIO
ARZALLUS

Haragtegia - Urdaitegia

HEMENGO GAZTAK

Jai zoriontzuak opa dizkizue

LEITZA
Tel.: 510.377

BERASTEGI
Tel.: 674.534

KAFETEGIA
GOZOTEGIA
NEKANE

TEL: 510328

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

SE RECOGEN ENCARGOS DE
TARTAS Y PASTELES

ARAKINDEGIA
JATETXEA

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

Tel. 510052

ZURGINTEGIA
TOMAS ALKOZ
"MARTIKO"

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
LEITZA

J.A. URKIOLA
Harategia, Urdaitegia

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.467
LEITZA

LEITZATARRA Taberna

Gosariak, kasuelak, pintxo beroak, e.a.

Irekita goizeko 7etatik.

Tel.: 510.352

JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE

TXOKO
Taberna, Jatetxea
Ostatua, mantenu osoa

JAI ZORIONTZUAK OPA DIZKIZUE

Tel.: 510.277
Oparigaiak, kirolgaiak, e.a.

GORA SAN TIBURTZIO!!
AUPA LEITZA!!



CAN
CAJA DE AHORROS